



# TXIKI UDALEKU IREKIAK



# AURKIBIDEA

- 1. Ongi etorri!**
- 2. Datak eta informazio garrantzitsua-** Fechas e información de interés
- 3. Helburuak-** Objetivos
- 4. Antolakuntza-** Organización
- 5. Programazioa-** Programación
- 6. Ekintzak-** Actividades
- 7. Zerbitzuak-** Servicios
- 8. Izen ematea-** Inscripción

**Ongi etorri Lauaxeta Ikastolako udalekuetara!**

**Uda une aproposa da deskubritzeko, ikasteko eta gozatzeko.**

**Udaleku eta udako ekintzek aukera paregabea eskaintzen dute autonomia garatzeko, ingurune aberasgarri batean sozializatzeko eta natura, kirola, sormena eta kultura bezalako arloekin harremanetan esperientzia berriak bizitzeko, edo ezagutzak eta esperientziak sakontzeko.**

**Ikastolatik, adin-tarte bakoitzari egokitutako ekintza eskaintza bat diseinatu dugu, etapa bakoitzaren interesak eta beharrak kontuan hartuta. Gure helburua da parte-hartzaile bakoitzak gozatzea, haztea, ikastea, edota adinan aurrera eginda titulazioak eskuratzea eta lan-aukerak zabaltzea ahalbidetuko duen gunea aurkitzea, betiere lagunartean eta esperientzia ahaztezinez betetako uda baten alde lan egingo duen monitore talde baten gidariztapean.**

**Aukerak aztertzeraz eta esperientzia honetara bat egitera animatzen zaituztegu, zalantzarik gabe, parte-hartzaile bakoitzaren etorkizunerako oroitzapen berezi eta bultzada bat izango baita.**

**Zuen zain gaituzue, aukera eta ikaskuntzaz beteriko uda bat partekatzeko!**

¡Ongi etorri a los udalekus Lauaxeta Ikastola!

El verano es un momento perfecto para descubrir, aprender y disfrutar.

Los campamentos y actividades de verano ofrecen una oportunidad única para desarrollar la autonomía, socializar en un entorno enriquecedor y experimentar nuevas experiencias en contacto con la naturaleza, el deporte, la creatividad y la cultura o de ahondar en conocimientos y experiencias que suman.

Desde la ikastola, hemos diseñado una oferta de actividades adaptada a cada edad, teniendo en cuenta los intereses y necesidades de cada etapa. Nuestro objetivo es que cada participante encuentre un espacio donde disfrutar, crecer, estudiar, obtener titulaciones que sumen y abran oportunidades de trabajo, y vivir experiencias inolvidables, rodeado de amigas y amigos y guiado por monitorado comprometido en que así sea.

Os animamos a explorar las diferentes opciones y a sumaros a esta experiencia que, sin duda, será un recuerdo especial y un impulso para el futuro de cada participante.

¡Os esperamos para compartir un verano lleno de oportunidades y aprendizaje!

# Datak eta informazio garrantzitsua

## Fechas e información de interés

| Noiz garatuko da?<br>¿Cuándo se desarrollará?                                                                                                                                                                                                                                          | Norentzat da?<br>¿A quién está dirigido? | Zein da prezioa<br>¿Qué precio tiene?                                                                                                                                                                                                                                                             | Zein da ordutegia?<br>¿Cuál es el horario? |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------|
| <b>UDALEKU IREKIAK</b><br><b>2 txanda (bat edo gehiago aukeratu daitekez).</b><br>2 turnos (se podrán elegir uno o varios): <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Ekainak 19-27 /</b> 19-27 de junio</li><li>• <b>Ekainak 30 - Uztailak 4/</b> 30 de junio a 4 de julio</li></ul> | <b>HH 3, 4, 5, LH 1, LH 2</b>            | <b>Ekainaren 19-27: 208€ ekintza soilik eta 42€ autobusa.</b><br>19-27 de junio: 208€ solo actividad y 42€ autobús.<br><br><b>Ekainak 30 - Uztailak 4: 150€ asteko ekintza soilik eta 30€ asteko autobusa.</b> 30 de junio a 4 de julio: 150€ por semana solo actividad y 30€ por semana autobús. | <b>9:15-16:30</b>                          |
| <b>BILBAO BASKET CAMPUS</b><br><b>Lauaxetan:</b><br><b>Ekainak 19-27 /</b> 19-27 de junio                                                                                                                                                                                              | <b>HH 4, 5, LH 1, 2, 3, 4, 5, 6</b>      | <b>268€ ekintza soilik eta 42€ autobusa.</b><br>268€ actividad y 42€ autobús.                                                                                                                                                                                                                     | <b>9:15-16:30</b>                          |

**HH 2 urtekoen zaintza zerbitzua eskatu nahi izanez gero, aurrerago bidaliko dizuegu informazioa.**  
En el caso de querer solicitar servicio de guardería para alumnado de 2 años, enviaremos la información más adelante.



**Haurrak lagun artean, jolas giroan pozik dagozanean, eta gurasook familiaren zaintza eta norbere lana kontziliatzeko laguntza dugunean, lasaitasunean irabazten dugu**



**Quando vemos que nuestros hijos-as disfrutan de sus vacaciones con los amigos-as y que los padres y madres contamos con una ayuda en la conciliación, ganamos en tranquilidad**

# Helburuak

## Objetivos

### UDALEKU IREKIAK

- **Autonomia eta autoestimua garatzea, eguneroko erronkei aurre egiteko tresnak eskainiz.**
  - **Giza balioen sustapena, hala nola errespetua, elkarbizitza eta ardura. Ikaskuntza esperientziala, ikasleak jarduera guztietan protagonista izanik.**
  - **Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, hizkuntza eta kultura modu naturalean barneratuz.**
  - **Hizkuntzen erabilera ludikoa, ingelesa eta euskara uztartuz. Ingurumenarekiko errespetua, naturaren zaintza bultzatuz.**
- Desarrollar la autonomía y autoestima, proporcionando herramientas para afrontar los retos cotidianos.
  - Promoción de valores humanos como el respeto, la convivencia y la responsabilidad. Aprendizaje experimental, con el alumnado como protagonista en todas las actividades.
  - Transmisión del euskera y de la cultura vasca, integrando la lengua y la cultura de forma natural.
  - Uso lúdico de las lenguas, combinando el inglés y el euskera. Respeto al medio ambiente, favoreciendo el cuidado de la naturaleza.

### BILBAO BASKET CAMPUS

- **Saskibaloiaz gozatzea: Jolas eta dinamika egokituen bidez saskibaloia ikasi eta ondo pasatzea.**
  - **Koordinazioa eta trebetasunak hobetzea: Gorputz-kontrola, arintasuna eta teknika modu naturalean eta aurrerakoi batean garatzea.**
  - **Taldean jokatzeko ikastea: Elkarlana, errespetua eta komunikazioa sustatzea kantxan eta kanpoan.**
  - **Autonomia eta konfiantza irabaztea: Erronka txikiei aurre egitea, erabakiak hartzea eta autoestimua indartzea giro lagungarri batean.**
- Disfrutar del baloncesto: Aprender y divertirse con el baloncesto a través de juegos y dinámicas adaptadas a su edad.
  - Mejorar la coordinación y habilidades: Desarrollar el control corporal, la agilidad y la técnica de forma natural y progresiva.
  - Aprender a jugar en equipo: Fomentar la cooperación, el respeto y la comunicación dentro y fuera de la cancha.
  - Ganar autonomía y confianza: Enfrentarse a pequeños retos, tomar decisiones y reforzar la autoestima en un ambiente de apoyo.

# Antolakuntza

## Organización

**Egindako jarduerak parte-hartzaileen adina, maila eta taldea kontuan hartuta antolatzen dira. Talde bakoitzak esleitutako gela bat izango du, hau izango baita egunero goizean motxilak eta egunerako materiala uzteko eta jarduerari hasiera emateko oinarrizko gunea.**

**Ikastolako instalazioak bere osotasunean erabiliko dira, haurrek bertako txoko guztiak ezagut ditzaten. Baserria zentral gisa erabiliko dugu, talde bakoitzak bere gela izan dezan eta han motxilak zein materiala utzi eta jarduerak hasteko gunea izan dadin. Bestalde, begiraleok Faktoria izango dugu gure operazio-zentro gisa, parte-hartzaile guztiek behar duten laguntza, materiala edo edozein zalantza edo egoera konpontzeko. Txango eta irteerez gain, ikastolako espazio guztiak erabiltzeko aukera izango dute haurrek.**

**BILBAO BASKET CAMPUsen kasuan, ikastolako kirol espazioak erabiliko dira, bai barne polikiroldegikoak, zein kanpokoak, igerilekua barne.**

Las actividades realizadas se organizan teniendo en cuenta la edad, el nivel y el grupo de participantes. Cada grupo dispondrá de una aula asignada, ya que ésta será la zona básica para depositar las mochilas y el material para el día por la mañana e iniciar la actividad.

Las instalaciones de la ikastola se utilizarán en su totalidad para que conozcan todos sus rincones. Utilizaremos el baserri como central, para que cada grupo tenga su propio espacio y allí deje sus mochilas, su material y sea el punto de inicio de las actividades. Por otro lado, los monitores dispondremos de Faktoria como nuestro centro de operaciones para resolver la ayuda, material o cualquier duda o situación que necesiten todos los participantes. Además de excursiones y salidas, los niños podrán disfrutar de todos los espacios de la ikastola.

En el caso de BILBAO BASKET CAMPUs se utilizarán los espacios deportivos de la ikastola, tanto del polideportivo interno como del exterior, incluida la piscina.



# Ekintzak

## Actividades

### TXANGOAK

Ikastolako ingurunea eta naturarekin harremana estutzeko aukera paregabea. Txangoak gure inguruan eta inguruko leku berezietan egingo dira, ikasleei paisaia ezberdinak, landaredia eta gure natura hurbilagotik ezagutzeko aukera emanaz. Gure helburua ez da bakarrik leku berriak ezagutzea, baizik eta ikasleei natura eta ingurunea izugarri estimatzeko aukera ematea. Bideak eta sentipenak partekatuz, komunitatearen eta ikastolako ingurune segurua eta familiarraren sentipena indartzen dugu.

### EXCURSIONES

Una oportunidad única para estrechar el contacto con el entorno y la naturaleza de la ikastola. Las excursiones se realizarán en nuestro entorno y en lugares singulares de la zona, permitiendo a los alumnos conocer más de cerca los diferentes paisajes, la vegetación y nuestra naturaleza. Nuestro objetivo no es sólo conocer nuevos lugares, sino dar a los alumnos la oportunidad de apreciar la naturaleza y el entorno. Compartiendo caminos y sentimientos, potenciamos el sentir de la comunidad y del entorno seguro y familiar de la ikastola.



### UR JOLASAK

Ura eta jolasa ezin hobeak dira elkarrekin! Ikastolako instalazioetan edo ingurune naturalez inguratuta, ur-jolasak aukera paregabea dira bero dagoenean aktibitate freskagarri eta dibertigarriak egiteko. Haurrek parte hartuko dute hainbat jolasetan, hala nola txirristak, ur-pistak eta lehia anitzak, talde-lana eta lankidetzaz garatuz. Ariketa fisikoak eta dibertsioa uztartzen dira giro freskagarrian, beti ere segurtasuna lehenetsiz.

### JUEGOS DE AGUA

¡El agua y el juego hacen buena unión! En las instalaciones de la ikastola o rodeados de entornos naturales, los juegos de agua son una gran oportunidad para realizar actividades refrescantes y divertidas cuando hace calor. Los niños participarán en diferentes juegos, como toboganes, pistas de agua y múltiples rivalidades, desarrollando el trabajo en equipo y la colaboración. Los ejercicios físicos y la diversión se combinan en un ambiente refrescante, primando siempre la seguridad.



## ALTXOR TOPAKETA

Abentura eta misterio bat! Altxorren bilaketak ikasleei enigma eta pista bitxien bidez ibiltzeko aukera ematen die. Talde bakoitzak mapa eta iradokizun zehatzak erabiliko ditu altxorraren bila, baina lehenengo, taldeko dinamikak eta lankidetzak funtsezko garrantzia izango dute. Kreatibitatea, talde-lana eta problemak konpontzeko gaitasuna lantzen dira, eta aldi berean, ingurunea hobeto ezagutzeko aukera paregabea da.

## ENCUENTRO DEL TESORO

¡Una aventura y un misterio! La búsqueda de tesoros permite a los alumnos caminar por enigmas y pistas curiosas. Cada grupo utilizará mapas y sugerencias concretas en busca del tesoro, pero primero la dinámica y la colaboración grupal tendrán una importancia fundamental. Se trabaja la creatividad, el trabajo en equipo y la capacidad para resolver problemas, a la vez que es una gran oportunidad para conocer mejor el entorno.



## EGUN TEMATIKOAK

Jarduera bakoitza istorio bat bilakatzen da! Egun tematikoak ikasleei esperientzia berriak eta dibertigarriak bizitzeko aukera eskaintzen die, non irudimena eta sormena lehen planoan egon. Superheroiak, naturaren zaindariak, edo eskualdeko kulturaren txokoak izango dira gure eguneroko abenturak. Ikasleek parte hartzeko motibazioa duten gaiek eta era guztietako erronkek esperientzia ahaztezina sortzen dute, etxeko giroan bizitako mundu magikoak sortuz.

## DÍAS TEMÁTICOS

¡Cada actividad se convierte en una historia! El día temático ofrece a los alumnos la posibilidad de vivir experiencias nuevas y divertidas en las que la imaginación y la creatividad estén en primer plano. Superhéroes, guardianes de la naturaleza, o rincones de la cultura regional serán algunas de nuestras aventuras cotidianas. Los temas y todo tipo de retos motivados por la participación del alumnado generan una experiencia inolvidable, creando mundos mágicos vividos en el ambiente doméstico.



## ARGAZKI GYNKANA

Ikasleek ikastola eta bere ingurunea gehiago ezagutzeko eta abentura bat bizitzeko aukera izango dute argazki gynkanaren bidez. Taldeka banatuta, parte-hartzaileek instalazioetan eta kanpoko guneetan ikusten dituzten pista eta erronkei erantzun beharko diete. Gynkanaren helburua taldeko lana, ikaskuntza eta dibertsioa uztartzea da, eta baita ikastolako ingurunea modu zabalean eta jolasean esploratzea.

## GYNKANA DE FOTOS

Tendrán la oportunidad de conocer más la ikastola y su entorno y vivir una aventura a través de la gynkana de fotos. Divididos en grupos, los participantes deberán responder a las pistas y retos que se les faciliten . El objetivo de la gynkana es combinar trabajo en equipo, aprendizaje y diversión, así como explorar el entorno de la ikastola de forma lúdica.



## ESKULANAK

Eskulanak egiteko jarduerak ikasleei bere burua adierazteko aukera ematen die, ta oroigarri bat eramango dute etxera beren abentura eta ikastolako egonaldia gogoratzeko. Kolore, forma eta material ezberdinekin, haurrak parte-hartzen duten jardueren oroigarri fisikoak sortuko dituzte. Hauek etxera eramango dituzte, eta bai haurrentzat baita familientzat ere, gogorapen maitagarria izango dira.

## MANUALIDADES

La actividad de manualidades les permite expresarse y llevarse un recuerdo de su aventura y su estancia en la ikastola. Con diferentes colores, formas y materiales, crearán recuerdos físicos que llevarán a casa, de las actividades en las que participan.



## BILBAO BASKET CAMPUS

Bilbao Basket Fundazioak Bilbao Basket Campusa garatuko du Lauaxetan, kirolaren arloko kultura eta bizikidetza hezkuntza-xedeekin sustatzeko, alderdi ludikoa baztertu gabe, garapen indibidual eta soziala landuz, giza prestakuntza integrala finkatzen duten balioak bultzatzeaz batera. Pertsona kopuru minimoa taldeetan: 15

## BILBAO BASKET CAMPUS

La Fundación Bilbao Basket desarrollará en Lauaxeta el Campus Bilbao Basket con el objetivo de fomentar la cultura y la convivencia en el deporte con fines educativos, sin excluir el aspecto lúdico, trabajando el desarrollo individual y social, al tiempo que se impulsan los valores que consolidan la formación humana integral. Se formarán equipos de 15 personas.



# Programazioa

# Programación

## HH3

Infantil 3 años

| HH3         |                                                                                                                                           |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
|-------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|
|             | Astelehena                                                                                                                                | Martitzena                                                                         | Eguaztena                                                                 | Eguena                                                               | Barikua                                                           |
| 9.00-9.15   | Autobusak hedu                                                                                                                            |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 9.15-9.30   | Jolas librea<br>(Identifikazioa)<br><br>Izen rondak pilotarekin                                                                           | Harrera: gelara joan eta bertan umeen materiala utzi (taldea batzeko une aproposa) |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
|             |                                                                                                                                           | Egunaren nondik norakoak<br>(material banaketa +<br>desinfekzioa)                  | Irteeraren azalpena<br>(Lauaxetatik)                                      | Egunaren nondik<br>norakoak (material<br>banaketa +<br>desinfekzioa) | Egunaren nondik<br>norakoak (material<br>banaketa + desinfekzioa) |
| 9.30-10.00  |                                                                                                                                           |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 10.00-11.00 | Talde banaketa eta<br>ikastolako esparruak erakutsi                                                                                       | Esperimentuak (*taula azpian<br>azalduta) kalean                                   | Lauaxetatik<br>ARGAZKI GINKANA                                            | Egun tematikoa:<br>SUPERHEROIAK<br>(azoka)                           | Ginkana eguna:<br>ur ginkana (*probak<br>pentsatu)                |
|             | Taldearen izenekin abestia<br>(horrela taldea batu behar<br>den bakoitzean abestu<br>daiteke)<br>/ deskribapen bitartez nor<br>den asmatu |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 11.00-11.30 |                                                                                                                                           |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 11.30-12.15 | Ezkutaketa izenak erabiliz<br>(harrapatzerakoan izea<br>esan)                                                                             | Eskulana 1: pultserak edo<br>lepokoak                                              |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 12.15-13.00 | Talde kartela + izena                                                                                                                     | Eskulanen aurkezpena +<br>material bilketa                                         | Argazki ginkanako<br>marrazkiak margotu                                   |                                                                      | Arropa aldatu eta jolas<br>librea                                 |
| 13.10-12.30 | Bazkalordua                                                                                                                               |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
| 13.30-14.10 | Jolas librea                                                                                                                              |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |
|             |                                                                                                                                           |                                                                                    | Eskulana 2:<br>superheroien<br>mozorroak prestatu<br>(*materialak azpian) |                                                                      | Diskofesta                                                        |
| 14.10-15.45 | STOP                                                                                                                                      | Boloak (ur botilak eta baloi bat)                                                  |                                                                           | Just dance                                                           |                                                                   |
| 15.45-16.15 | ez daitela globoa jausi                                                                                                                   | Playmais (formak,<br>marrazkiak...)                                                | Jolly Phonics                                                             | Erlajazio saioa                                                      |                                                                   |
| 16.15-16.30 | Taldeak batu + Autobusa                                                                                                                   |                                                                                    |                                                                           |                                                                      |                                                                   |

## HH4

Infantil 4 años

| HH-4          |                                                     |                                                                                    |            |                                  |                         |
|---------------|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|------------|----------------------------------|-------------------------|
| ASTELEHENA    |                                                     | MARTITZENA                                                                         | EGUAZTENA  | EGUENA                           | BARIKUA (Superheroien   |
| 09:00 - 09:15 | AUTOBUSAK HELDU                                     |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 09:15 - 09:30 | TALDEA BILDU ETA ARAU, ESPAZIO ETA MUGAK AZALDU     | HARRERA: GELARA JOAN ETA BERTAN UMEEN MATERIALA ITXI (Taldea batzeko une aproposa) |            |                                  |                         |
| 09:30 - 10:00 |                                                     | ALTXORRAREN BILA                                                                   | UR GINKANA | ORIENTING (San Miguelen bukatuz) | MOZORROAK SORTU         |
| 10:00 - 11:00 | TALDE EZAGUTZA DINAMIKAK (Armiarma sarea) + KARTELA |                                                                                    |            |                                  | POTEREA KORTZOKO FROKAK |
|               | 11:00 - 11:30                                       |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 11:30 - 12:15 |                                                     |                                                                                    |            | EZAGUTZA JOLASAK                 |                         |
| 12:15 - 13:00 |                                                     |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 13:10         | BAZKALORDUA                                         |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 13:30         |                                                     |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 13:30 - 14:10 | JOLAS LIBREA / LEHIAKETAK                           |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 14:10 - 15:45 | JOLASALDI AKTIBOA                                   | ESKULANA:                                                                          | DANTZAK    | FUROR                            | MONITORE DESAGERTUA     |
| 15:45 - 16:15 | AZKARIA                                             |                                                                                    |            |                                  |                         |
|               | ERLAJAZIO SAIOA + EBALUAZIO SAIOA                   |                                                                                    |            |                                  |                         |
| 16:15 - 16:30 | TALDEAK BATU + AUTOBUSA                             |                                                                                    |            |                                  |                         |

LH 1-2.  
1º-2º de Primaria

| LH 1+2        |                                                                                                  |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|-----------------------|----------------------------------------------------------------------------------|
|               | ASTELEHENA                                                                                       | MARTITZENA                                                                                      | EGUAZTENA                                                                 | EGUENA                | BARIKUA                                                                          |
| 9:00 - 9:15   | AUTOBUSAK HELDU                                                                                  |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 9:30 - 10:00  | Ezagutza jolasak<br>(Pistolero, laranja-limoia, ...)                                             | Ur jolasak<br>(palangana pasau<br>atzekoari, zapitxo,<br>erreleboak...)                         | IRTEERA<br>(Kanpetara)<br>Bertan jolasak:<br>harri orri ar,<br>zapitxo... | EGUN<br>TEMATIKOA     | Olinpiadak                                                                       |
| 10:00 - 11:00 | Konfiantza jolasak +<br>jolas kooperatiboak<br>(musu plakaje, maite zaitut,<br>begiak itxita...) |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 11:00 - 11:30 | HAMAIKETAKOA                                                                                     |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 11:30 - 12:15 | Kartela                                                                                          | Ur jolasak<br>+<br>Arropak aldatu                                                               | IRTEERA                                                                   | EGUN<br>TEMATIKOA     | Euskal tribial                                                                   |
| 12:15 - 13:00 | Dinamika (Ninja)                                                                                 |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 13:10         | BAZKALORDUA                                                                                      |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 13:30         |                                                                                                  |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 13:30 - 14:10 | JOLAS LIBREA                                                                                     |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 14:10 - 15:45 | Jolas kooperatiboak<br>(toma hunt)                                                               | Jolas kooperatiboak<br>(musikaria, aulkien<br>jolasa, buztai<br>lasterketa...)<br>+<br>MOZORROA | Ikastolara<br>bueltatu<br>+<br>Mozorroa<br>amaitu                         | Erlajazio<br>ekintzak | Dinamikak (Hitzak<br>abestiak, baloiekin<br>gerra, kono lapurketa,<br>izarra...) |
| 15:45 - 16:15 | Jolas librea edo jolas kooperatiboak                                                             |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |
| 16:15 - 16:30 | TALDEAK BATU + AUTOBUSA                                                                          |                                                                                                 |                                                                           |                       |                                                                                  |



# Zerbitzuak

## Servicios

### 1. Garraioa

**Eskolaz kanpokoan garraio zerbitzua eskuragarri izango da, izen ematen dutenen arabera autobusak antolatuz.**

### 2. Jangela

**Jangela zerbitzua egongo da, ikastolan ohikoak diren sukaldari eta langile profesionalen eskutik.**

### 3. Igerilekua

**Aurten, igerilekua berritasun moduan gehituko da gure programaziora, eta ur-jolasetan parte hartzeko aukera izango dute ikasleek. Igerilekua giro freskagarri eta dibertigarrian jolasteko lekua izango da, eta, aldi berean, talde-lana eta lankidetzaren sustatuko dituen espazioa.**

### 4. Ikastolako Kanpoko Espazioak

**Ikastolako kanpoko espazioak erabiliko ditugu, ikasleek askoz gehiago disfrutatzeko aukera izan dezaten, naturan eta kanpoan egon ahal izateko.**

### 5. Baserriko Gelak

**Baserriko gelak izango dira eskuragarri baita, beharrezan arabera ekintza ezberdinak bertan garatzeko.**

### 1. Transporte

Estará disponible el servicio de transporte, organizando los autobuses según las inscripciones.

### 2. Comedor

Habrà servicio de comedor a cargo de los cocineros y trabajadores profesionales habituales de la ikastola.

### 3. Piscina

Este año, la piscina se incorporará como novedad a nuestra programación y tendrán la oportunidad de participar en juegos acuáticos. La piscina será un lugar de juego en un ambiente refrescante y divertido, a la vez que un espacio que fomente el trabajo en equipo y la colaboración.

### 4. Espacios Exteriores de la Ikastola

Utilizaremos los espacios exteriores de la ikastola para que puedan disfrutar de la naturaleza y el aire libre.

### 5. Baserri

Se dispondrá de espacios del baserri para desarrollar diferentes actividades en función de las necesidades.



# Izen ematea

## Inscripción

- **Ordainketari dagokionez, prezioaren %50a apirileko ordainagirian gauzatuko da eta beste %50a ekaineko ordainagirian.**
- **Udaleku eskaera atzera botatzea nahiko balitz, hurrengoa euki beharko litzateke kontutan.**
  - **Martxoak 30a orduko atzera botako balitz; ez da ezer kobratuko.**
  - **Apirilak 1 - Maiatzak 30 bitartean atzera botako balitz; apirileko ordainagirian ordaindutakoaren %50a bakarrik itzuliko da (hau da, udalekuko prezioaren %25a ez da itzuliko).**
  - **Ekainak 1etik aurrera eta udalekua hasi bitartean; udalekuko prezioaren %50a bakarrik itzuliko da.**
- **Behar den eran arrazoitutako osasun arazoiren bategatik izan ezik, ez da dirua guztiz itzuliko.**
- **Ez da posible plazarik eskatzea, ikasturteko errezibo arrunten ordainketan atzeratuta egonez gero.**

- Durante los días del campamento, no se admiten visitas al campamento ni llamadas telefónicas.
- En cuanto al pago, el 50% del precio se hará efectivo en el recibo de abril y el otro 50% en el recibo de junio.
- Si se quisiera cancelar la inscripción, habría que tener en cuenta lo siguiente:
  - Cancelaciones hasta el 30 de marzo; no se cobrará nada.
  - Cancelaciones entre el 1 de abril - 30 de mayo; sólo se devolverá el 50% de lo abonado en el recibo de abril (es decir, no se devolverá el 25% del precio del campamento).
  - Cancelaciones entre el 1 de junio - Hasta el inicio del campamento, sólo se devolverá el 50% del precio del campamento.
- No se realizarn reembolsos salvo por motivos de salud debidamente justificados.
- No es posible solicitar plaza en caso de estar atrasado en el pago de los recibos ordinarios del curso.

- **Edozein zalantzaratako, idatzi mesedez: [gizagirre@lauaxeta.eus](mailto:gizagirre@lauaxeta.eus)**
- **Izena emateko epea martxoaren 21ra arte luzatzen da. Plaza eskatzeko, beheko botoian klikatu:**

- En caso de cualquier duda, se puede escribir a [gizagirre@lauaxeta.eus](mailto:gizagirre@lauaxeta.eus)
- El plazo de inscripción se extiende hasta el 21 de marzo y podrá realizarse accediendo al siguiente botón:

**Izena eman nahi dut**  
**Quiero inscribirme**



LAUAXETA  
IKASTOLA

[lauaxeta.eus](http://lauaxeta.eus)